

UDALAK EDO UDAL ERAKUNDE AUTONOMOEK ANTOLATUTAKO HEZKUNTZA-, KULTURA-, KIROL- EDO GIZARTE-IZAERAKO NAHIZ OSASUNA SUSTATZEKO IKASTARO ETA JARDUERETARAKO SARRERA, IZENEMATE EDO MATRIKULEN PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ARAUA

10. araua

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan jasotako baimenaren babesean.

Kontzeptua

2. artikulua.- Prezio publikoak galdutako dira Udalak edo Udalaren erakunde autonomoek urtean zehar antolatzen dituzten hezkuntza-, kultura-, kirol- edo gizarte-izaerako nahiz osasuna sustatzeko ikastaro, ekitaldi edo jardueretan parte hartu edo horietara joateko eskubidea ematen duten sarrera, matrikula edo antzeko beste edozein kontzeptu direla-eta, halakoak prezio publikoak aplikagarri dituzten beste arau batzuek barne hartzen ez badituzte.

Arau honen barnean sartuta daude Gaztediaren Etxeko jarduerekin lotutako agiriak eta 3D-koak inprimatzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak.

Kudeaketarako eta diru-bilketarako arauak

3. artikulua.- Prezio publikoa sarrera hartu, izena eman edo matrikula egiteko unean ordaindu beharko da. Sarrerren kasuan, sarrerak zein udal-bulegotan hartu eta bertan jarritako eskudirutako kutxan ordaintzen ahalko dira.

4. artikulua.- Arau honen Tarifa-eranskinaren II. epigrafean jasotako murriztapenak honako arau hauen arabera aplikatuko dira:

Murriztapenei heldu nahi dieten eskatzaileek agerrarazi beharko dute baldintzak betetzen dituztela ezarritako epean, hori egiaztatze agiriak nahitaez aurkeztuta, artikuluko honetan adierazitakoarekin bat. Alor kudeatzaileak ezarritako kasuetan non posible baita ofizioz egiaztatzea, eskatzaileak betekizuna egiaztatze aurkeztu behar duen agiriaren ordean egiaztapen horretarako behar den baimena aurkeztuko du.

Egiaztatze agiriak:

- a) Murriztapena familia ugaria izateagatik jasotzeko, familia ugariko titulua, betiere familia ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legean –zeina maiatzaren 18ko 6/2005 Foru Legeak aldatu baitzuen– ezarritako definizioarekin bat. Murriztapena familia gurasobakarrei aplikatzeko, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legeak ezarritako definizio eta arautzearekin bat, familia gurasobakarreko titulua.
- b) Murriztapena familia-unitatearen diru-sarrerak direla medio jasotzeko, familia-unitateko kideek urtean jasotako diru-sarrera gordinen aitorten justifikatua eta PFEZa egiteko betebeharra duten kideen zerga horren gaineko aitortpena edo likidazioa, eskaera noiz egin eta jada data horretan aurkezteko epea amaiturik duen ekitaldiari dagokiona. Betebeharririk ez badago PFEZaren gaineko aitortpenik egiteko, datu fiskaletan jasotako diru-sarrera gordin eguneratuak hartuko dira kontuan.
- c) Murriztapena desgaitasuna dela medio jasotzeko, agiri ofizial bat, non jasoko baita eskatzaileak % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duela, edo ezintasun iraunkorra zein baliaiezintasuna direla bide administrazio publikoen diru-prestazioak jasotzearen gaineko egiaztagiria.
- d) Murriztapena terrorismo-ekintzen biktima izateagatik jasotzeko, biktima-izaera aitortzen duen administrazio-ebazpena edo epaia, eta biktima batekin ahaidetasun-harremanik izanez gero, hori egiaztatzen duen agiria.
- e) Murriztapena genero-indarkeriaren biktima izateagatik jasotzeko, hori aitortzen duen epaia, eta biktima batekin ahaidetasun-harremanik izanez gero, hori egiaztatzen duen agiria.
- f) Murriztapena familiek beren baitan beste pertsona batzuk hartzeagatik jasotzeko, familia-harrera formalizatzen duen agiria edo hura erabaki duen administrazio-ebazpena edo epaia.

3) Murriztapen bat baino gehiago jasotzeko eskubiderik edukiz gero, murriztapenak ezinen dira metatu. Murriztapenak eranskinaren I. epigrafean araututako tarifetan baino ezin dira aplikatu.

5. artikulua.- Eskatzaileak % 100eko murriztapena jasotzeko eskubidea badu, prezioaren % 50 ordaindu beharko du matrikula egitean. Katetoria bereziko familia ugarien kasuan, horietako bi kidek edo gehiagok ematen badute izena ikastaroetan, kide bati bakarrik galdutako zaio dagokien prezioaren % 50 ordaintzea. Kopuru hori behin ikastaroa amaituta itzuliko diote, betiere eskola-orduetan eskatutako gutxieneko kopurua bete badu.

6. artikulua.- Prezio publikoak ikastaro edo jardueren antolamenduari buruzko oinarriek kasuan-kasuan ezarritako moduan eta tokian ordainduko dira.

7. artikulua.- Ikastaroa edo jarduera egiten ez bada –prezioa ordaintzera behartuta dagoenari leporatu ezin zaizkion arrazoiak direla-eta–, itzuli eginen zaio dagokion zenbatekoa.

Tarifak

8. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifak Arau honen eranskinean azaltzen dira, edo, bestela, kasuan-kasuan ezarriko dira, egin behar diren jardueren ezaugarri bereziei jarraikiz, eta barne hartuko dute, behar izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

9. artikulua. Zehaztapenak, familia-unitateen diru-sarrerak direla medio jasotzekoak diren murriztapenatarako:

a) Familia-unitatea: Prezio publikoa kalkulatzeko, PFEZaren gaineko indarra duten arauetan xedatutako familia-unitatea hartuko da aintzat.

b) Errenta: PFEZaren gaineko aitortpena edo likidazioa egiteko betebeharra duten familia-unitateko kideen azken aitortpena edo likidazioa –eskaera noiz egin eta data horretan jada aurkezteko epea amaizurik duen ekitaldiari dagokiona– hartu, eta haren zerga-oinarriaren parte orokorra eta aurrezkiaren likidazio-oinarri berezia batuko dira, eta emaitzari salbuetsitako prestazioen edo errenten zenbatekoa gehituko zaio. Ez dira salbuetsitako prestazio edo errentatzat hartuko Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak (PAGNA) mendekotasuna duten pertsonak familia-ingurunean zaintzeko emandako laguntzak, baldin eta zaintza horiek familiakoek edo profesionalak ematen badituzte. Baldin eta errentaren ondoriozko murriztapen bat adingabeei bakarrik aplikatu nahi bazaie, eta haien gurasoek aitortpen bereziak egiten badituzte, bi aitortpenak aurkeztu beharko dira.

c) Errenta garbia: errenta garbia kalkulatzeko, aurreko apartatuan zehaztutako errentaren eta gastu kengarrien diferentzia hartuko da kontuan.

d) Gastu kengarriak. Errentari dagokion ekitaldian ordaindutako zenbatekoak, jarraian adierazitako kontzeptuengatik:

1. Ohiko etxebizitzako gastuak (muga: 4.800 € urteko), honako kontzeptu hauek batuta:

- Ohiko etxebizitzaren, apartamentu babestu publiko baten edo antzeko beste zerbaiten alokairua.

- Ohiko etxebizitza erosteko maileguaren amortizazioa.

- Ohiko etxebizitza egokitzeko edo birgaitzeko lanek sortutako gastuak, pertsonen behar soziosanitarioengatik edo eraikinak jasangarriago bilakatzeko beharregatik.

2. Langileak kontratatuzko gastuak gizarte- eta osasun-egoera dela medio halakorik behar duten pertsonak beren etxeetan jarraitu dezaten arreta pertsonala jasotzen, betiere hori guztia frogatzeko modukoa izanda, dela mendekotasuna aitortzeko ebazpen baten bidez, dela Udaleko gizarte-zerbitzuek egindako txosten baten bidez (muga: 8.400 € urteko).

Gastu kengarria ezartzeko, hala badagokio, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak (PAGNA) mendekotasuna duten pertsonak familia-ingurunean zaintzeko kobratutako laguntzak kenduko dira. Kenkari horri heltzeko, kontratatutako pertsonaren kontratua eta Gizarte Segurantzako alta aurkeztu beharko dira.

3. Eguneko zentroetako egonaldi-gastuak (muga: 4.800 € urteko) edo egoitza geriatrikoetako egonaldi-gastuak (muga: 12.000 € urteko).

4. Pentsio konpentsatzaileak: epai judizialean jasotakoak. (Bakarrik aplikatzen ahal da PFEZaren aitortpenaren zerga-oinarritik errenta kalkulatzeko ez den kasuetan).

TARIFA-ERANSKINA

I. EPIGRAFEA.- MATRIKULA:	
I.1. Euskarazko ikastaroetarako matrikula, ikasturte osorako (urritik maiatzera):	
- Astean 3 ordu bitarte	86,95 euro
- Astean 6 ordu bitarte	137,45 euro
I.2.- Zehazki arautu gabeko ikastaro edo jardueretan parte hartzeko matrikula, gaztelaniaz nahiz euskaraz (ordu bakoitzeko tarifa):	
- 9 ordu bitarte	3,16 euro
- 30 ordu bitarte	2,40 euro
- 30 ordutik gora	1,12 euro
Tarifa % 20ra bitarte handituko da, Udalak materialik emanez gero ikasleei.	

II. EPIGRAFEA.- I. EPIGRAFEARI APLIKAGARRI ZAIZKION MURRIZTAPENAK:	
II.1.- Familia moten arabera:	
- Kategoría orokorreko familia ugaria edo kategoría orokorreko guraso bakarrekko familia.	% 50
- Kategoría bereziko familia ugaria edo kategoría bereziko guraso bakarrekko familia.	% 100
II.2.- Desgaitasuna dela medio:	
- Legez aitortuta % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak	% 50

II.3.- Familia-unitatearen diru-sarrerak direla medio. Honako murriztapen hauek aplikatuko dira:	
Familia-unitatearen diru-sarrerak	Murriztapen-ehunekoak
Errenta garbia	
Gizarteratze Errentaren \leq % 100	% 90
Gizarteratze Errentaren \leq % 200	% 50
(GE: Gizarteratze Errenta edo hori ordeztu dezakeen adinako laguntza bermatua)	
Murriztapen honen onuradun izaten ahalko dira diru-sarrerarik ez duten pertsonak edo familiak, betiere haien diru- eskasiako egoera berezia Udaleko gizarte-zerbitzuek berretsi behar dutelarik, egiaztatzeko beste modurik ez badute.	
II.4.- Terrorismo-ekintzen biktima izateagatik:	
- Terrorismoaren biktima-izaera epaiaren edo administrazio-ebazpenaren bitartez aitortua duten pertsonak, beren gurasoak, seme-alabak eta ezkontideak edo bikotekide egonkorak, betiere eskatzen den gutxieneko ordu-kopurua betetzen badute	% 100
- Zentroak eskatzen duen gutxieneko ordu-kopurua bete ezean, murriztapenak % 50 joko du, eta ikasleak matrikularen % 50 ordaindu beharko du, izena ematean egin ez badu.	
II.5.- Genero-indarkeriaren biktima izateagatik:	
d) Etxeko eremuan gauzatutako indarkeria fisikoaren edo psikikoaren biktima, beren gurasoak, seme-alabak eta ezkontideak edo bikotekide egonkorak –betiere epaiak ez baditu jo delituaren erantzule kriminalak–, ikasleak eskatzen zaion gutxieneko ordu kopurua betetzen badu	% 100
- Zentroak eskatzen duen gutxieneko ordu-kopurua bete ezean, murriztapenak % 50 joko du, eta ikasleak matrikularen % 50 ordaindu beharko du, izena ematean egin ez badu.	
II.6.- Familia-harrera dela medio:	
- Harrera-familiak, harrera-egoeratik datozen edo harrera-egoeran dauden 25 urtetik beherakoak (harrera hori familia batean zein egoitza batean izan) eta bereak ez diren familiek hartuak izan diren pertsonak, ebazpen judizial zein erabaki baten edo Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzaren edo pertsona hori babesteko ardura duen entitate publikoaren oniritziaren bitartez hartuak izan badira	% 100
II.7.- % 10eko murriztapena edukiko dute 30 urtetik beherakoek eta langabetuek. Murriztapen hau ez da metagarria izanen beste beherapen bat jasotzeko eskubidea izanez gero.	

III. EPIGRAFEA.- BISITA GIDATUAK:	
III.1.- Iruña ezagutu programako bisita gidatuak:	
- Ikasle-talde bakoitza –Lehen Hezkuntzako 5. mailakoak izan ezik–, 30 lagun bitarte	36,90 euro
- Ikasleenak ez diren talde bakoitza, 30 lagun bitarte	109,05 euro
III.2.- Turismo-bisita gidatuak, prezioa pertsonako:	
- Helduendako prezioa	5,10 euro
- 14 urtetik beherakoendako prezioa	3,06 euro
III.3.- Bisita gidatu antzeztuak, musikaz edo bestelako eszena-edukiaz eta bestelako turismo-jardueraz:	
-Helduendako prezioa	10,20 euro
-14 urtetik beherakoendako prezioa	5,10 euro
Tarifak handituko dira Udalak parte-hartzaileei materialik emanez gero, honekin bat:	
- Gastronomía-produktu konbinatua (edaria + pintxoak): 5,10 euro	
- Bestelako materialak edo gastronomía-produktu bakuna: 2,04 euro	
III.4.- Murriztapenak bisita gidatuatarako:	
Murriztapena, Pamplona Iruña Card (PIC) deskontu-txartela daramatenendako.	
- Turismo-bisita gidatuak III.2 epigrafean jasotako bisita gidatuetan, murriztapen hau:	% 20
- Bisita gidatu antzeztuak, musikaz edo bestelako eszena-edukiaz III.3 epigrafean jasotako bisita gidatuetan, murriztapen hau:	% 20

IV. EPIGRAFEA.- AISIALDI ETA DENBORA LIBREKO JARDUERAK. ZENBAT EURO EGUNEKO:	
- 12 urte bitarteko adingabeei zuzenduak	Gehienez, 30,60 euro
- 12 urtetik gorako adingabeei zuzenduak	Gehienez, 35,70 euro
Deskontuak:	
- Familia-unitate bateko bi seme-alaba edo adingabek izena emanez gero. Deskontua, izena zein jardueratarako eman eta horietako bakoitzaren zenbatekoaren gainean	% 20

- Familia-unitate bateko hiru seme-alaba edo adingabe baino gehiagok eman izanez gero. Deskontua, izena zein jardueratarako eman eta horietako bakoitzaren zenbatekoaren gainean	% 30
--	------

V. EPIGRAFEA.- CIVIVOXETAKO SARRERAK ARTE ESZENIKOETAKO ETA MUSIKAKO IKUSKIZUN PROFESIONALETARAKO:	
- Haurrendako ikuskizunak	Gehienez, 5,10 euro
- Helduendako ikuskizunak	Gehienez, 10,20 euro

VI. EPIGRAFEA. - GAZTEEI ZUZENDUTAKO JARDUERAK Gazteriako Unitateak zuzenean zein Gaztediaren Etxearen bidez antolatutako jarduerari honako tarifa hauek aplikatuko zaizkie	
VI.1.- Zehazki arautu gabeko ikastaro edo jardueretan parte hartzeko matrikula, gaztelaniaz nahiz euskaraz (ordu bakoitzeko tarifa):	
-Prezioa, prestakuntza edo jarduera orokorretan:	
14-17 urte bitarteko gazteak	0,92 euro
18 eta 30 urte bitarteko gazteak	1,12 euro
-Prezioa, sukaldaritzako prestakuntza edo jardueretan:	
14-17 urte bitarteko gazteak	1,63 euro
18-30 urte bitarteko gazteak:	1,94 euro
VI.2.- Berriazko araudian arautu gabeko aisialdi eta denbora libreko jardueretan parte hartzeko matrikula, gaztelaniaz nahiz euskaraz (prezioa, eguneko):	
14 eta 17 urte bitarteko gazteendako	Gehienez, 40,80 euro
18 eta 30 urte bitarteko gazteendako	Gehienez, 51,00 euro
** Beste adin-muga batzuk ezartzen direnean, gutxienekoak eta gehienekoak: - 12 eta 13 urte bitarteko gazteendako direnean, 14 eta 17 urte bitarteko gazteendako tarifak aplikatuko dira. - 31 eta 35 urte bitarteko gazteendako direnean, 18 eta 30 urte bitarteko gazteendako tarifak aplikatuko dira.	
VI.3.- Agiriak eta 3Dkoak inprimatzeko zerbitzuak, Gaztediaren Etxean:	
Inprimatzea edo fotokopia egitea A4n eta zuri-beltzean	0,15 €
Curriculum inprimatu edo fotokopiatzea A4n eta koloretan	0,20 €
Inprimatzea edo fotokopia egitea A4n eta koloretan	1,02 €
Inprimatzea argazki-paper gainean A4n eta koloretan	2,04 €
Inprimatzea edo fotokopia egitea A3n eta zuri-beltzean	0,36 €
Inprimatzea edo fotokopia egitea A3n eta koloretan	1,53 €
3Dko inprimatzea PLAn (gramoko)	0,05 €
3Dko inprimatzea, zurean (gramoko)	0,12 €
3Dko inprimatzea, filaflexen (gramoko)	0,15 €
3Dko inprimatzea, kobreak (gramoko)	0,26 €

VII. EPIGRAFEA.- UDALAREN HAUR ESKOLEN SAREAN HIRUGARRENEI HARRERA EGITEA BISITA ETA AURKEZPEN TEKNIKOETAN	
Haur Eskolen Erakunde Autonomoko langileek harrera egitea bisita eta/edo aurkezpen teknikoetan. Bisita eta/edo aurkezpen tekniko bakoitzeko prezioa, gehieneko iraupena sei ordu eta erdi izanik	61,20 euro, lagun eta eguneko.